

*txanela*

Irakaslearen gidaliburua  
(zirriborroa)

**3**

**Urte askoan, txapela kaskoan!**

(Txanela - Material globalizatua,  
Lehen Hezkuntza - 3. maila)

## TXANELA 3: HIRUGARREN UNITATE DIDAKTIKOAREN GIDA

### “URTE ASKOAN TXAPELA KASKOAN!”

**Proiektua:** Prebentzio-kanpaina bat antolatzea.

#### ZEHAR LERROAK, TREBETASUN SOZIALAK

Osasun hezkuntza eta prebentzioa	Unitate guztian zehar.
Giza eskubideak, harremanak eta bake hezkuntza.	Bizi ohiturak, harremanak. Solidaritatea

#### EUSKAL DIMENTSIOA

Hizkuntza eta literatura	Gabonetako olerkia: <i>Joxean Ormazabal</i> Igarkizunak: <i>J.K. Igerabide</i> Ipuinak: “Joantxo eta Sorgina” <i>J.M. Olaizola</i> “ <i>Txiliku</i> ” Ipuin literarioa: “ <i>Nik erremerre hitz egiten dut, eta zer?</i> ”
Musika eta gorputz motrizitatea	Unitateko abestia: “ <i>Bost iratxo</i> ” <i>Joxean Ormazabal eta Imanol Urbieta</i> . Tradiziozko abestia: “ <i>Ikusi nuenian</i> ” <i>R.M. Azkue</i> . Euskal taldeen abestiak: “ <i>Hegal egiten</i> ” <i>Itoiz</i> . “ <i>Ikusi</i> ” <i>Delirium Tremens</i> Dantza: “ <i>San Petrike</i> ” <i>Oskorri</i> Haur jolas eta abesti: “ <i>Kikuri bikuri</i> ”, “ <i>Bat eta bi</i> ” eta “ <i>Harriola marriola</i> ” <i>Hik hasi</i>

#### **Bibliografia euskaraz:**

*Gazteentzako entziklopedia ilustratua: Izaki bizidunak*. Ttartalo

# IKT jarduerak

Duela zenbait urte hasita, Ikastolen Elkarteak hezkuntza eremuko I+G+B egitasmoak eta proiektuak garatzen ari da. IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologia) alorrean hainbat urtetako eskarmentua metatua du, euskarazko eta euskal kulturaren ardaztutako software kurrikularra eta aisialdikoak ekoiztean aitzindaria izanez. Horren lekuko dira, besteak beste:

- **IKASYS** Ikastolen Elkarteak garatutako hezkuntza alorreko proiektu berritzailea. IKASYS proiektuak konpetentzien garapenerako beharrezkoak diren baliabideen sistematizazioa du helburu nagusia; horretarako, trebakuntzan, memorizazioan eta ulermenaren garapenean oinarritutako tipologia askotariko jardura sorta handia eskaintzen du.
- **Txanela webgunea** ([www.txanela.net](http://www.txanela.net)). Lehen Hezkuntzarako IKT konpetentziak hainbat konstanteren inguruan lantzeko eta garatzeko bidea aurkituko da Txanela webgunean. Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira. Oraingoz, “Txanela Globalizatua” deritzan arlo multzoan (Euskara- Ingurunea-Plastika) txertatu dira IKT jarduerak.
- **Ostadar webgunea** ([www.ostadar.net](http://www.ostadar.net)). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleei eta ikasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira han. Irakasleari, gida didaktikoa jardueraz jardura zehaztuta eskaintzeaz gain, IKT jarduerak egiteko eta gidatzeko zehaztapen guztiak ematen zaizkio. Ikasleari, IKT jarduerak proposatzeaz gain, haiek egiteko behar dituen baliabideak ematen zaizkio. Oraingoz, Ostadar proiektuko hiru arloetan txertatu dira IKT jarduerak: Naturaren Zientziak, Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura.

\* \* \* \* \*

## Virtusbooks plataforma

IKASELKAR argitaletxeak (Ikastolen Elkarteak eta Elkar argitaletxeak sortua) 2011-2012 ikasturteik aurrera beste aukera bat eskainiko du. Beste baliabide bat eskaintzen da teknologia berrien eta IKT jardueren arloan. **Virtusbooks** (<http://www.virtusbooks.com/>) plataformaren bidez zoom-liburua eskaintzen zaie irakasleei eta ikasleei, ohiko ikasliburuen osagarri. Zoom-liburu horretan hainbat baliabide txertatu dira: bideoak, audioak, fitxategiak, estekak... Txanela webgunean eta Ostadar webgunean dauden hainbat IKT-jardura ere gehitu zaizkio. Horrela, irakasleak gune berean izango ditu Txanela proiektuak (Ostadar proiektuak) dituen baliabide guztiak, hainbat proiektagailu, erreproduzitzailerik, etab. erabili beharrik gabe.









Hurrengo orrialdean agertzen den taularen bidez irakasleak jakingo du zein jardueratan izango duen baliabide digitaletara jotzeko aukera. Bestalde, irakasleak berak ere erantsi ahal izango ditu baliabideak, gero ikasleek arbel digitalean edo bakoitzaren ordenagailuan ikus ditzaten.

## TXANELA 3

IKASLEAREN LIBURUA - 3. UNITATE DIDAKTIKOA

### BALIABIDEAK

Liburu digitalaren eta gidaliburuaren arteko lotura

GIDALIBURUKO JARDUERA	BALIABIDE MOTA	EDUKIA	TXANELAKO ORRIALDEA	LIBURU DIGITALEKO ORRIALDEA
0		Baliabideen taula	3	83
10		<i>San Petrike</i>	12	92
26		<i>Hegal egiten</i>	18	98
28		<i>Bost iratxo</i>	20	100
43		<i>Greensleeves-en fantasia</i>	26	106
49		<i>Ikusi</i>	29	109
63		Urte askoan txapela kaskoan	35	115
68		Jolasa 1: <i>Kinkuri Bikuri</i> Jolasa 2: <i>Bat eta bi</i> Jolasa 3: <i>Harriola-mariola</i>	40	120

# JARDUEREN ANALISIA

## 1. Azalari behatzea eta elkarrizketa

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Unitate didaktikoaren azala*

Aurreikuspen-estrategiak landu eta haurrak motibatzeke asmoz, liburuaren azalari behatzea eta elkarrizketa bultzatuko ditugu. Elkarrizketa bideratzeko, Tough-en hizkuntz funtzioetan oinarrituko gara; elementuak izendatuz, euren artean erlazionatuz, esandakoa arrazoituz eta iragarpenak eginaz.

Hasteko izenburuari erreparatuko diogu:

- *Zer adierazi nahi digu izenburuak?* Izenburu gisa dugun esaera honen esanahia argitzeaz gain, antzekoak diren beste esaera batzuk ere gogora ekartzen saiatuko gara: “Txapela buruan ibili munduan”...

Ondoren, irudiari erreparatuko diogu eta irudiako robotaren atalak osatzen dituzten elementuak izendatu eta hauen funtzioa gure gorputzaren atalekin erlazionatzen saiatuko gara.

-*Zer da robotak buru gainean duena? “Kasko” hitzak zer adierazi nahi du kasu honetan?* Burua.

- Hainbat dira Txapela hitza duten euskal esaerak ere, ekar itzazue horiek guztiak gogora; “Txapela galduta izan” (Zoroa) “Txapela oker izatea” (Zorakeriak egiten duenari esaten zaio)...

Nahi izanez gero, esaera hauen guztien erabileran trebatzeko, “erranak erran” saioari bidea eginez, hainbat egoera asmatzeari ekin diezaiokezue.

Txapela hitza aipatu dugunez burua adierazteko, aprobetxa ezazue ikasleekin “neure burua” esamoldearen inguruko elkarrizketa sortzeko. “Neure burua zaindu behar dut” esaten dugunean adibidez, buruaz gain gorputza ere adierazi nahi baitugu, gu geu oso-osorik, alegia.

Azkenik, gaiaren inguruko galdera egingo diegu:

-*Zer uste duzue landuko dugula gai honetan?*

Elkarrizketa bukatzean, ikasleek euren izena idatz dezatela unitatearen hirugarren orrialdean.

## 2. Komikia

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 4. eta 5. or.*

Komikia irakurtzen hasi aurretik izenburuari erreparatuko diogu eta honen inguruan elkarrizketa sortuz, aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu eta iragarpenak egingo ditugu.

*-Zer adierazi nahi digu izenburuak? Zerk arindu ditzake txapelaren azpikoak? Zer uste duzue gertatuko dela komikian?*

Ondoren, ikasleek bakarka irakurriko dute komikia. Adieraz iezaiezue, beti bezala, komikian, hitza bezain adierazgarria izan daitekeela irudian bertan ager daitekeen edozein xehetasun, beraz eman iezaiezue behar beste denbora hauek sakonki azter ditzaten.

Gero, taldean, komikiaren inguruko elkarrizketa sortuko dugu eta Tough-en hizkuntz funtzioak martxan jarriko ditugu:

*- Martin zuhaitz gainetik erori da, zein uste duzu izan dela horren arrazoia? Ba al zegoen istripu hori saihesteko modurik zure ustez? Nola jokatu zenukeen zuk, Martin edo Kleo izan bazina, egoera eta momentu horretan istripu hori saihesteko? Inoiz hartu al duzu zuk horrelako kolperik? Jolasten ari zarenean izaten al dituzu kontuan jolas horrek izan ditzakeen arriskuak eta aurre hartzen al diozu gerta daitekeen horri?*

*- Nor da Mari? Zertara etorri da Ttonttorpera? Zer esan nahi du “prebentzio” hitzak?*

*- Mari elbarria da, zer da gertatzen zaiona? Ezagutzen al duzu zuk elbarriren bat? Zein da duen arazoa? Zuen ikastolan ba al dago elbarriren bat? Hala balitz, eta pertsona horrek nahi balu, interesgarria litzateke gelara gonbidatzea, eta bere egoeraren berri emateaz gain, gizartean aurkitzen dituen oztopoen berri ere ematea. Honelako egoeratan bizi diren pertsonakiko izan ditzakegun jarrerak duten garrantzia ere aztertu.*

*- Esamoldeekin jarraituz, izenburuaren esanahia bera duen beste esaera bat agertzen da komikian, zein? “Ganbaratik aleren bat galdu”. Zer esan nahi du?*

*- Burua adierazteko erabiltzen diren, edota buruarekin zerikusia duten hainbat hitz agertzen dira komikian, zein dira hitz horiek? (Txapela, kaskagorria, ganbara...)*

*- Martini txapelaren azpikoa arindu zaio, eta etxeak ipuinetako pertsonaiekin nahasten ditu. Zeintzuk dira aipatu dituen ipuinetako pertsonaiak? Zergatik uste duzu erabili duela kasu bakoitzean hauetako pertsonairen bat, hau da, zein erlazio egin du izen hauek erabiltzeko orduan?*

*- Zer gertatzen zaio Xabierri?*

*- ...?*

Solasaldiaren ostean, komikiko pertsonaien banaketa adostu eta talde txikitara ozeneko irakurketari ekingo diete ikasleek, hizkuntzaren baliabideak lantzeko asmoz. Komenigarria da ikasleei birgogoratzea, arreta berezia jarri beharko dietela elementu prosodikoei (intonazioa, etenak, bolumena...) ozeneko irakurketan, testua zuzen irakurtzeaz gain doinuaren garrantzia azpimarratuz.

### **3. Aurre-ezagutzak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 6. or.*

Hainbat dira garunak gidaturik momentu berean gure gorputzak egin ditzakeen ekintzak eta hau da, hain zuzen ere, gure ikasleek uler dezaten nahi duguna. Gure gorputzak eta garunak duten garrantzia azpimarratu eta baita hauek zaintzearen garrantzia ere. Horretarako ikasleek, bakarka, liburuko irudiari arretaz behatu eta jarduerak idatziz erantzuteari ekingo diote, gero, taldeko elkarrizketan komunean jarriko ditugu erantzunak.

Aurre-ezagutzei dagokion jarduerarekin bukatzeko, talde handian, gorputzak egin ditzakeen ekintzen zerrenda idatziko dugu eta baita ekintza hauek adierazteko erabiltzen diren aditz zerrenda osatu ere.

### **4. Dramatizazioa**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Talde txikian*

Aurreko jardueran, gorputzak egin ditzakeen ekintzen zerrenda idatzi dutenez, orain aipatutako ekintzak dramatizatu ditzakete.

### **5. Proiektua**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 7. or.*

Unitate honetako proiektua zein den azaltzen digun orria irakurriko dugu talde handian. Unitatean zehar garuna eta gorputzaren funtzionamenduari buruzko informazioa bildu eta hauei buruzko kontzeptu batzuk geureganatu ondoren, prebentzio-kanpaina jarriko dugunez martxan, interesgarria izango litzateke hitz horren esanahia ondo argitzea. Horregatik, prebentzio hitza hiztegian begiratu eta taldean honen inguruko elkarrizketa sortzea komenigarria da, ezagunak ditugun prebentzio-kanpainak aipatuz. Zer da hobe, prebenitzea ala sendatzea edo damutzea? Prebentzio hitza eta honen esanahia talde handian adostu ondoren, gelako hiztegian idatz dezakezue.

Bukatzean, gure txoko zurira ekarri dezakegun informazioaz mintzatuko gara. Gogoratu, txokoa hornitzeko etxetik ekar daitezkeen gauzen artean, osasun zentroetan, hainbat direla kanpaina ezberdinen inguruko txostenak eta hauek gelara ekartzea interesgarria izan daitekeela.

### **6. Ikasnorabidea**

*Lan egiteko era: Talde handian/Binaka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 8. eta 9. or.*

Gaiaren sekuentzia tematikoa zein den jakiteko, lehenengo zutabearen dagoen ingurumen-arloa irakurtzeari ekingo diogu. Ondoren, eman iezaiezue ikasleei tarte bat, binaka irakur eta komenta dezaten beste arloetan ere zer den ikasiko dutena unitate honetan.

Gogora ezazue, ikasnorabidea ikasleen ikasketa prozesuaren autoerregulaziorako tresna dela eta unitatean murgildu ahala, behin baino gehiagotan etorri beharko duzuela bertara, jarduera bakoitzean arlo ezberdinetan lantzen diren edukien berri izatearekin batera ikasleek euren ikasketa prozesuaren kontzientzia izan dezaten.

## **7. Gorputza eta burua**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian/Binaka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 10. eta 11. or.*

Atal berri hau hasi aurretik komenigarria da ikasnorabidera jotzea.

Ondoren, tartetxoa emango diegu ikasleei bi orrialde horietan dauden gorputza eta garunari buruzko azalpenak ulertu eta irudiak behatzeko.

Azalpen-testuan garuna eta burmuina hitza azaltzen direnez, aukera duzue hiztegian begiratzeko eta informazioa osatzeaz gain, gelako hiztegitxoan apuntatzeko. Galde iezaiezue ikasleei ea bi hitz hauetatik zein izango den hiztegian agertuko den lehena eta bide batez aprobetxa ezazue alfabetoa erreparatzeko, gogora ekarriz txikitatik ezagutzen duten alfabetoaren abestia. Aukera aprobeztatuz, galdera hau egingo diegu ikasleei;

- *Esanahi bera duten bi hitz zer direla esaten dugu? Sinonimoak*

Gero, azalpen-testuko informazioa talde handian argitzen saiatuko gara. Bukatzeko, interesgarria litzateke ikasleek binaka jarrita, irakurri dutena kontuan izanik, eta irudian oinarrituz, lagunari adieraztea bere hitzekin azalpen testuan irakurritakoa.

## **8. Plastikozko garuna**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 12. or.*

Ikasleek, bakarka, orrialde horretan agertzen den argibide-testua irakurri ondoren, talde handian elkarriketa sortuko dugu; ulertu ez denaren inguruko argibideak emateko, esperimientua egiteko beharrezko diren materialak non lor daitezkeen eta nork ekarriko dituen adosteko, etab. Behin materiala lortuta, ikasle bakoitzak bakarka, bere plastikozko garuna egiteari ekin diezaiola.

## **9. Igarkizunak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 3, 35. or.*

Ikasleek bakarka, irakurgaietan azaltzen zaizkien Juan Kruz Igerabideren lau igarkizunak irakurri, ulertu eta asma ditzatela. Nahi izanez gero, garunak kontrolatzen dituen atalen inguruko igarkizunak asmatzeari ekin diezaiokenezue, hiruko talde txikitan, gero talde handian irakurri eta iragartzeko.



## **10. Dantza: *San Petrike, Oskorri***

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: CDa, 12. pista*

Garuna gorputzeko atal guztiak kontrolatzeko gauza dela frogatzeko, gorputzeko atal asko mugimenduan jarriko ditugu “*San Petrike*” dantza ikasiz Oskorriren eskutik.

### Dantzaren urratsak:

- Oinarrizko pausua bi aldiz: besoak goian ditugula, jotan egiten dugunean bezala, pauso bat aurrera eta beste bat atzera eman ondoren, buelta bat emango dugu biribilaren barru aldera, beste bat beste aldera, eta azkena, berriro ere barrualdera. Bi aldiz errepikatuko dugu pausu hau.
- Oin puntarekin: oinarrizko pausua bi aldiz egin dugunean, eskuineko oin punta luzatu, eskuinean jarri, ezkererantz eraman eta eskuinera berriro. Gero gauza bera ezkerreko oin puntarekin, ezkerrean jarri, eskuinera eraman, eta ezkerreko azkenik.
- Buelta eman biribilaren alderantz.
- Oinarrizko pausua bi aldiz.
- Oin puntarekin.
- Eskuko atzamar erakuslearekin: oinekin egin dugun gauza bera, baina eskuineko atzamar erakuslearekin lehenengo eta gero, ezkerreko atzamar erakuslearekin.
- Buelta eman biribilaren alderantz.
- Oinarrizko pausua bi aldiz.
- Oin puntarekin.
- Eskuko atzamar erakuslearekin.
- Belaunekin.
- Buelta eman biribilaren alderantz.
- Buelta eman biribilaren alderantz.

Eta honela jarraituko dugu dantzatzeko ziklo osoa bukatu arte:

- Oinarrizko pausua bi aldiz.
- Oin puntarekin.
- Eskuko atzamar erakuslearekin.
- Belaunekin.
- Ukondoekin.
- Ipurdiarekin.
- Belarri batez.
- Buelta eman biribilaren alderantz.

## **11. Harizko nerbio sistema**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 13. or.*

Ikasleek tartetxo bat izango dute nerbio-sistemari buruzko argibide-testua irakurtzeko. Ondoren, talde handian elkarrizketa sortuko dugu argibideak emateko.

Behin beharrezko materialak lortu ditugunean, hiru edo lau laguneko talde txikitik jarrita, harizko nerbio-sistema egingo dugu. Nahi izanez gero, egindako lana osatzeko asmoz, garuna, neurona, nerbio-zelula eta bizkarrezur muina irudika ditzakezue eta baita idatziz adierazi ere.

Bukatzeko, pertsonaiek adierazitakoa irakurri eta talde elkarrizketa sortuko dugu aurre-ezagutzak aktibatu eta Tough-en hizkuntza funtzioak martxan jarritz:

- *Zergatik esaten du Xabierrek gure gorputzak zirkuitu elektrikoa dirudiela?*
- *Nerbio-sistema jaiotzatik kaltetuta daukatenez zein zailtasun eta oztopo izaten dituzte eguneroko bizitzan?*

Imajinatu astegun batean, esnatzen garenetik oheratzen garen arte egiten ditugun ekintza guztiak. Aipatu elbarria den pertsona bat bere kabuz, eta bestelako laguntzarik gabe, hauek zeintzuk egiteko gai izango litzatekeen eta zeintzuk ez. Jarri arreta berezia traba, zailtasun edo oztopoak suposatzen dituzten horietan eta aipatu horrelako pertsona bati nola lagun diezaioketun guk bere bizitza errazteko. Oztopo arkitektonikoak ere kontuan hartu.

## **12. Gure nerbio zelulen funtzionamendua frogatzen**

*Lan egiteko era: Binaka*

Binaka jarrita, proposa iezaiezue ikasleei hurrengo erreflexu-jarduera egitea euren nerbio-sistemak ondo funtzionatzen duen jakiteko:

- *Jesarrita, gurutzatu eta lasaitu hankak. Esan lagun bati belaunaren azpian golpe gozo bat emateko eskua irekita, eta alboz joz.*
- *Zer da gertatzen dena? Zer esan nahiko du horrek? Ongi erantzun al du zure nerbio-sistemak?*

## **13. Oroimena lantzen**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 14. or.*

Talde handian oroimenaren inguruko azalpen testutxoak irakurri eta oroimena lantzeko proposatzen den jolasa praktikan jarriko dugu. Ondoren, esperimendatutakoaren inguruan hausnartu eta galderei bakarka erantzungo diete ikasleek. Azkenik talde handian erantzunak konpartituz.

## **14. Kontzeptuak erlazionatzen: elkartasun jolasa**

*Lan egiteko era: Binaka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 15. or.*

Binaka, ikasleek oroimena eta irudimena lantzeko elkartasun jolasa egingo dute. Bukatzean, talde handian esperientziari buruz mintzatuko gara, estrategiak, zailtasunak etab. aipatuaz.

## 15. Filosofia

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 15. or.*

Filosofiarri tartea eginez, ikasleek banaka, txinatar pentsalaria zen Konfuzio maisua eta bere ikaslearen arteko elkarrizketa irakurriko dute. Gero, talde handian, horren inguruan mintzatuko gara. Ekar iezaiezue gogora ikasleei gauzak ez direla buruz ikasiz eta pilatuz ikasten, euren artean erlazionatuaz baizik, erlazio horrek ematen baitio izaera elementu bakoitzari.

- *Zerbait berria ikasten dugunean, informazio berria, lehen genuen informazioarekin erlazionatzen dugu eta loturak egiten ditugu, honela, errazago ulertzen dugu, eta ikasitakoari zentzua emanik, oroimenak errazago gordetzen du informazio hau.*

- *Adibidez, bizikletaz ibili zinen lehenengo aldian garunak pentsatu behar izan zuen: pedalei eman, oreka mantendu, eskulekua kontrolatu, bidea zaindu eta galgatu (frenatu)... Denbora eta praktikarekin neuronak mezuak hartu eta bidaliz, informazioa erlazionatuz eta loturak eginez, informazio berria eratu du: bizikletan ibili izenekoa. Orain pentsatu gabe azken informazio hori martxan jartzearekin nahikoa duzu bizikleta gainean ibiltzeko.*

- *Oroitzapen horretara sarritan itzultzen bagara, freskatu egingo da eta eraginkorrago gordeko du garunak, hala ez denean, oroitzapena desagertu egiten da. Garrantziaren arabera, guretzako bitxiak diren momentu edo uneetara askotan bueltatzen gara.*

## 16. Diktaketa

*Lan egiteko era: Bakarka*

Ikasleek bakarka euren koadernoan hurrengo diktaketa idatzi beharko dute. Bukatzean autozuzenketa bultzatzeko asmoz, eman iezaiezue tarte bat idatzitakoa irakurri eta egoki ikusten dituzten zuzenketa egiteko. Nahi izanez gero, diktaketan irakurritakoaren irudia ere egin dezakete.

*“Bizikleta bat ikusi eta aho bete hagin geratzen nintzen txikitari. Osabak bere txikitako bizikleta zahar eta eder hura oparitutako zidala esan zidan bizikletan ibiltzen ikasitakoan. Baina... nola ikasiko nuen nik ez banuen bizikletarik? Eskerrak lagunak banituen! Eta osabak “Ikasi eta zurea izango da!” esan zidan egun berean, Mainerren bizikleta gainean igo, eta jo eta su astindu nituen pedalak, gorputzeko indar guztiak agortu arte. Eta, ez zen erreza izan. Gorriak ikusi nituen. Baina ikasi nuen. Bai horixe! Hori bai, osabak ia-ia ez ninduen ezagutu bizikletaren bila joan nintzen egunean.*

*—Hi al haiz? —galdetu zidan.”*

Ondoren, mintzamina lantzeko asmoz elkarrizketa sor dezakezue.

- *Zein izango zen osabak iloba ez ezagutzeko arrazoia?*

- *Nolakoa imajinatzen duzue bizikleta?*

- *Nola imajinatzen duzue izango zela bizikletan ibiltzen ikasteko emandako prozesua? Jausi, ubeldurak egin, zaurien bat ere bai... astindu dezatela irudimena.*

- *Nola izan zen zuen esperientzia? Erraz ikasi al zenuten bizikletan ibiltzen? Konta dezatela euren esperientzia.*

Gauza guztiak ikasteko ekin beharra izaten da, batzuetan garunak ekite edo ikasketa-prozesu horretan denbora gehiago behar izaten du, besteetan berriz, gutxiago, baina dena entrenamendu kontua izaten da, eta eutsi egin behar zaio ekintzari, etsi beharrean. Ekimena duten pertsonak dira bizitzan lorpen handienak izaten dituztenak. Gogora iezaiezue hau ikasleei eta anima itzazue euren nahiak eta ilusioak betetzera.

## **17. Iritzi-errota**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 15. or.*

Edozein gauza dela ere ikasi behar duguna, bakoitzak bere estrategiak erabiltzen ditu. Problema bat ebazteko edo ikasteko orduan, estrategia batzuk unibertsalak izan daitezke eta lagun gehienentzat baliagarrienak izan eta agian egokienak. Baina horrek ez du esan nahi estrategia bera erabili behar dugunik denok, batentzako baliagarria izan daitekeena, bestearentzat ez baita izango agian. Horregatik beharrezkoa da, jardun guztietan, modu esplizituan estrategiak konpartitzea eta lantzea, eta bakoitzak, norberarentzako egokiena dena aukeratzen jakitea.

Aipatutakoa izango da iritzi-errotan eztabaidagaia. Iritzi-errota martxan jarri aurretik, ekar itzazue gogora zein diren eman beharreko urratsak eta prozedura.

## **18. Denbora pasekin estrategiak lantzen**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Bakarka/Talde handian*

*Materiala: 5. lan-koaderno, 37. or.*

Ikasleek tartetxo bat izango dute lan-koadernoko bi jarduerak irakurtzeko eta ulertzeko. Ondoren, horrelako ariketa bat egiten dugun lehenengo aldia denez, talde handian argitu egingo dugu jarduera honen helburua. Gero, ikasleek bakarka, jarduera egiteari ekingo diote. Bukatzeko elkarrizketa sortuko dugu jarduera burutzeko erabili dituzten estrategien inguruan; adibidez, goitik behera behatzea irudia edo ezkerretik eskuinera edo... Ondoren, estrategia bakoitza baloratzen saiatuko gara, hau da, lana errazten duen ala ez, modu horretan denbora gutxiago behar den jarduera burutzeko edo ez, ...

## **19. Kontzeptu mapak**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 16. eta 17. or./CD-ROMa*

Informazioa era sintetikoan adierazteko eta errepresentatzeko tresnen artean kokatzen ditugu kontzeptu mapak. Hauetan kontzeptuak eta euren arteko loturak ere adierazten dira. Bi orrialde hauetan kontzeptu mapen inguruko informazioa ematen da gaiaren baitako informazioa erabiliz adibide bezala. Talde handian irakurriko ditugu bi orrialde hauek eta behar diren beste argibide emanaz, ikasleak kontzeptu mapen izaera eta garunaren kokapena eta funtzioaz jabetu direla ziurtatzeko.

Gogoratu CD-ROMean ergatiboa lantzeko ariketak dituzuela.

## **20. Elkartasun jolasa: Besarkadak**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Garunak zentzumenez gain, mintzamina, mugimendua, pentsamendua eta oroimena ere kontrolatzen dituela ikasi dugu. Jar ditzagun bada hauetariko funtzio batzuk martxan elkartasun jolas bat eginaz.

Besarkaden jolas hau, laguntza hartu eta eskaintzeko eta konfiantzazko jolasa dugu. Jolas honen helburua, talde kohesioa, komunikazioa eta laguntzazko harremana lantzea dira.

Jolasa martxan jartzeko erritual bihurtu diren urratsak jarraituko ditugu:

### **1. Talde handian, gogora ekarri elkartasun jolasa zer den eta zertan datzan.**

Beste kideekin batera jolastea, bakoitzak ahal duen neurriko ekarpena eginaz jolasean, helburu bakar eta bera lortzeko eta, indibidualismoan eta konpetibitatean oinarritutako hezkuntza eredua saihestuz. Inor ez da kanporatzen, inork ez du galtzen, denok jolasten dugu, ondo pasatzen dugu eta denok gara irabazle.

### **2. Jolasa azaldu eta jolasari buruzko zalantzak argitu.**

Zotz egin ondoren, jolaskide bi izango dira harrapatzaileak eta beste guztiak harrapakinak. Harrapatzaileek hamar zenbakira arte kontatu ostean, gelan zehar hainbat norabidetan korrika ari diren harrapakinak harrapatu beharko dituzte. Harrapakinak, harrapatzailea hurbiltzen zaionean harrapatetik salbu egoteko inguruan duen beste harrapakin bat besarkatu beharko du, bestela, harrapatzaileak harrapatuko du eta bera ere harrapatzailea bihurtuko da. Harrapatzaileak nortzuk diren jakiteko komenigarria litzateke bereizgarriren bat jartzea, zinta bat besoan adibidez. Bestalde, ohar bezala aipa iezaiezue ikasleei ezin dutela lagun bera besarkatu denbora luzez, bestela automatikoki harrapatzaile bihurtuko dira. Jolasa, jolaskide guztiak harrapatzaile bihurtzean bukatuko da, bestela jolaskideak nekatuegi edo zeharo arinduta ikusten dituzuenean.

### **3. Jolastu.**

### **4. Talde handian, jolasean bizi izandako esperientzia, hitzen bidez adierazi.**

Sentimenak, zailtasunak...

*- Gozatu al duzue jolas honekin? Nola sentitu zarete harrapatzaileen eskuetan jausteko zorian egon zaretenean eta laguna besarkatzean? Nola sentitu zarete harrapatzaileak izatean? Nola sentitu zarete beste norbait besarkatzean? Eta beste norbaitengandik besarkada jasotzean? Gustura besarkatu al dituzu lagun guztiak salbu egoteko orduan, edo agian norbait ez besarkatzearen nahiago izan duzu harrapatua izatea? Zergatik? Luzaroan izan al zara harrapakina? ...?*

Jolas honen bidez, alderdi afektiboa lantzen dugu (ukipen fisikoa, mugimendua, arriskua eta hau saihesteko ekintzak eta tentsioen deskargak), garapen soziala (elkarri laguntzea, hitzik gabeko komunikazioa eta talde kohesioa), garapen intelektuala (arreta) eta garapen motorea (gorputzaren koordinazioa).

## **21. Oroimenaren lagun handia da loa**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 3, 36. eta 37. or.*

Ikasleek bakarka, irakurgaietan aurkituko duten loaren azalpen-testua irakurri eta irudiekin erlazionatu beharko dute. Ondoren, taldean elkarrizketa sortuko dugu irakurritakoaren inguruan, euren esperientziei leku eginez.

Loa adin guztietan garrantzia handikoa da. Haurren kasuan hauek dira batik bat arrazoi nagusienak:

- Haurrengan heldutasun neurologikoan transzendentzia du.
- Fisikoki nahiz psikikoki indarberritzea eragiten du.
- Ikasketa prozesuan eta oroimenean preserbatzea eragiten du.
- Loaren garrantzia, neurona zentroen oreka naturala berriztatzeke balioa baitu.

Loa eta ametsekin gabiltzan honetan, bigarren mailan irakurritako “*Mister Daffodil eta bere denda*” ipuina gogora ekar dezakezue. Bertan ametsak birziklatu egiten ziren. Aurreko jardueran esandakoa frogatu dezakezue ipuin hau gogora ekartzearekin batera, ikasleen garunak orduko informazio gordeta duen oraindik edo dagoeneko zeharo ahaztuta daukan, alegia.

## **22. Ondo lo egiteko aholkuak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 18. or.*

Loa indarberritzailea izateko badira hainbat gauza kontuan izateko. Ikasleek ondo lo egiteko aholkuak idatzi beharko dituzte koadernoan, horretarako informazioa bilduz; etxean galdetuz, liburuetan arakatzuz, interneten begiratuaz etab.

Hona hemen ohitura egoki batzuk lo-indarberritzailea izateko:

- Digestioa eginda joatea ohera, ez gose, ez lar bete.
- Kola moduko freskagarri kitzikagarririk ez hartu.
- Lokartu aurretik, lasaitzen zaituen gauzaren bat egin: irakurri, musika lasaia entzun pixka batean, edo gurasoekin apur batean hitz egiten egon.
- Zaratarekin ez egin lorik, nahiz eta ez entzun, lo sakona izatea galarazten baitu.
- Ordutegia zaindu, saiatu ordu berberean oheratzen eta esnatzen, ohiturak finkatzeak asko laguntzen dio gorputzari bere eginbeharretan.
- Arnasketa lasaia eta sakona egin, erlaxatzeko.

## **23. Gelan egiteko erlaxapen gidatua.**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Aurreko jardueran aipatutakoa bizitzan aplikatzeko asmoz, ikasleei erlaxatzen irakatsiko diegu. Gogora iezaiezue erlaxapenaren funtzio zein den, hau da, urduri gaudenean edota oso arinduak, lasaitzeko erabiltzen dugun jarduera dela. Ondoren erlaxapen gidatua jarriko dugu praktikan gela barruan eta talde handian.

Gelan arnasketa eta erlaxazio ariketak tarteka egitea egokia da. Ez da denbora gehiegi behar eta oso osasuntsua da guztiontzat. Modu honetan zuzenduko gatzazkie ikasleei:

- *Eroso eser zaitetz aulkian... bizkarra zuzen... aulkari ondo erantsirik... besoak zabalik eta eskuak izter gainean ahurra gora begira, emandakoa hartzeko prest bageunde bezala.*
  - *Horrela, lasai, erlaxatuta... har ezazu arnasa sakonki.... sudurretik hartu eta ahotik botaz. Berriro, ... hartu arnasa sakonki... eta itxi begiak.*
  - *Arreta guztia zure eskuetan jarri, zure besoetan... Itxi eskumuturrak eta indarrez estutu. Estuago... gero eta estuago... senti ezazu zure eskuetako eta besoetako gihar guztien tentsioa... eta... askatu.*
  - *Senti itzazu erlaxatzen... senti ezazu nagitasun, astuntasun sentsazioa... eta hauteman itzazu eskuak eta besoak guztiz erlaxaturik (pausa laburra).*
  - *Jarri arreta guztia zure buruan... eta aurpegian... Itxi begiak indarrez... estutu barailak indarrez... estutu, gero eta gehiago. Senti ezazu tentsioa buruan eta aurpegian... eta ...aska itzazu gihar guztiak...*
  - *Senti itzazu erlaxatzen... senti ezazu odolaren berotasuna buruan eta aurpegian ... eta erlaxatu. (Pausa laburra)*
  - *Jarri arreta guztia ipurmasailetan, izterretan eta oinetan... estutu indarrez zure gorputzeko atal hauek guztiak... estutu indarrez... gero eta estuago... senti ezazu tentsioa gihar guztietan... eta askatu.*
  - *Senti itzazu erlaxatzen. Senti ezazu oraingo egoeraren eta tentsioan zeundeneko egoeraren arteko desberdintasuna... eta... erlaxatu. (Pausa laburra)*
  - *Senti ezazu gorputz guztia nagi... aske... astun... guztiz erlaxatua. (Pausa laburra)*
  - *Jar itzazu eskuak sabel gainean leunki presioa eginez... hartu arnasa sakonki... oso sakonki... eta hauteman itzazu birrikak eta urdaila guztiz puzten. Saia zaitetz sabela guztiz puztuta, airez beteta sentitzen. Bota ezazu arnasa pixkanaka eta mentalki errepikatu “Guztiz erlaxatua nago, ze ondo!”*
  - *Jar itzazu eskuak berriro ere izterretan eta jarraitu une batez arnasa geldo eta sakonki hartzen; arreta guztia arnasean jarri, bere erritmo naturalean eta gero eta erlaxatuago sentitu.*
  - *Guztiz erlaxatua zaude. Zure baitan eta zuregandik kanpo gertatzen den guztiaren sentsazio guztien, irudi guztien jaun eta jabe zara.*
  - *Oso ondo sentitzen zara. Gozatu sentimendu hori. (pausa laburra)*
  - *Orain kontzentra zaitetz zure arnasean... arnasa sakonki hartu eta erlaxatu. Ondoren, bost arte kontatu. Bostera iristean begiak irekiko eta guztiz esna egongo zara, oso gustura, erlaxatua eta atsedean hartuta sentituko zara.*
- Bat...bi...hiru...lau...eta bost. Ireki begiak eta sentitu zaitetz gustura eta atsedean hartua.*

## **24. Etxean eta bakarka egiteko erlaxapenaren urratsak:**

*Lan egiteko era: Bakarka*

Ikasleek etxean eta bakarka erlaxapena praktikatu nahi izanez gero, ondoren dituzuen urratsak dikta iezazkiezue. Aste guztian zehar lotara joan aurretik praktikan jartzea proposatu diezaiekezue eta ondoren, elkarrizketa bultzatu esperientziaren inguruan.

- *Aulki batean eserita edo ohe gainean etzanda lasai jarri.*
- *Ezkerreko eskuko ukabila itxi eta poliki-poliki estutu. Estu-estu dagoela sentitu.*
- *Ezkerreko eskua poliki-poliki lasaitu eta nola erlaxatzen den sentitu.*
- *Eskuineko eskuko ukabilarekin gauza bera egin, estutu eta erlaxatzen sentitu.*

- Urrats bera egin ezkerreko besoarekin eta gero eskuineko besoarekin.
- Eta horrela jarraitu, oinekin eta hankekin.
- Begiak itxi eta erabat estutu. Estu-estu itxita daudela sentitu eta gero ireki eta sentitu nola lasaitzen diren.
- Ezpainak estutu bata bestearen kontra eta ondoren, lasaitu.
- Bizkarreko giharrak estutu, mantendu presioa eta gero lasaitu kontzienteki.
- Sabeleko eta ipurdiko giharrekin ere gauza bera egin.
- Bukatzeko sentitu gorputz guztia erlaxatua eta gozatu erlaxazio horrekin.

## 25. Ametsen inguruko elkarrizketa

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 18. or.*

Talde handian irakasleak arbelean idatzitako Anjel Lertxundiren “*Ametsetan lo*” olerkia irakurriko dugu eta ondoren, liburuan bertan agertzen diren galderak jarraituaz ametsen inguruko elkarrizketa sortuko dugu.

### Ametsetan lo

—Lo, lo, lo. Ametsetan zer berri?

—Ametsetan berri onak orain eta beti.

—Ametsetan, nola ikusten da hemengo bizia?

—Han ez da ez goiz ez gau, han beti da eguerdia.

—Eguerdi hain ederrean, zer duzu egiten?

—Pozik ibiltzen naiz zoriona banatzen.

*Anjel Lertxundi*

## 26. Abestia: Itoiz

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: CDa 13. pista.*

Talde handian pop-rock musikaren barruan historikoa izan den *Itoiz* Euskal taldearen “*Hegal egiten*” abestia entzungo dugu, betiko pausuak jarraituz:

-Entzun eta, musikaz eta erritmoaz gozatu.

-Entzun eta mezuaz edo gaiaz jabetu eta taldean kontrastatu.

Interesgarria da hiztegian begiratzea taldearen izena eta honi buruzko informazioa (taldearen sorrera, abesti ezagunenak, musika estiloa...) eskuratzea ere.



## 27. Ipuina

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 3, 38. orrialdetik 41.era/Ikaslearen liburua, 19. or.*

Gaiaren ipuina taldean irakurriko dugu, ikaskuntza-elkarkaria praktikan jarritz. Ikaskuntza mota honen xedea zera da: ulermenaren eraikuntza, baina irakurketari jolas itxura ematen dionez, bide batez, haurren irakurketarekiko motibazioa erraztu eta pizten du.

Irakurketa mota honek, bi helburu nagusi ditu; testuaren ulermena batetik, eta bestetik, irakurketa estrategiak era esplizituan eta testuinguru naturalean lantzea. Beraz, ulermenaren bidez ezagutzak bereganatzeaz gain, ikasleak, irakurketa-estrategia horren funtzioaz ere jabetu ahal izango dira. Irakurketa mota hori praktikan jartzen duzuen hirugarren aldia denez, aukera duzue talde txikitan praktikatzeko. Hala ere, aurreko bi esperientziek baldintzatuko dute lan egiteko era, irakasleak talde txikietan egitea egoki ikusiko ez balu, talde handian egiteko aukera ere hor dago. Gogoratu hauek direla banatu eta landu beharreko rolak: irakurlearen rola, ikertzailearena, galdetzailearena, kazetariarena, asmatzailearena eta jakintsuarena. Talde handian ekar itzazue gogora rolak eta bakoitzaren funtzioa ere. Gero, ekin iezaiozue irakurketari.

Esperientzia praktikan jarri eta burutu ondoren, talde handian, honi buruz hitz egingo dugu: gustukoa izan duten, zein zailtasun izan dituzten, rolak argi gelditu diren, paperen bat ondo ez betetzeak zer suposa dezakeen, zein den rolik zailena eta zergatik... Elkarrizketa honek, irakurketari dagokionez, irakasleoi pista asko eman diezaizkiguke, ikasle bakoitzak dituen zailtasunak agerian geldituko baitira. Bukatzean, ikasleei ipuina bakarka irakurtzeko aukera emango diegu eta gero elkarrizketa sortuko dugu liburuan agertzen diren galderen inguruan.

## 28. Kanta-kantari!: Bost iratxo

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 20. or./CDa, 14. pista*

Gaiaren abestia den "Bost iratxo" entzungo dugu, eta taldean, liburuan agertzen den letra irakurri kantatuko dugu.

Orrialde honetan, Abestien CDari eta *Musikako lan-koadernoari* sarrera ematen dioten ikonoak ikusiko dituzue. Musikako lan-koadernoaren bidez, lengoia musikala eta txirula landu ditzakezue.

## 29. Txisteak

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 3, 42. eta 43. or.*

Ikasleek, bakarka, txisteak irakurriko dituzte, gozatzeko.

Gero, talde handian, txisteen inguruko hausnarketatxo bat egin dezakegu: txiste bakoitzaren ironia zein den azpimarratzen saiatuko gara, zerk eman dion txisteari grazia edo umore puntua, alegia.

Bestetik, puntuazio zeinuei (elkarrizketa adierazten duen gidoia, galdera ikurrak, harridura ikurrak...) so egiteko parada ona dugu hau. Ondoren, tarte bat emango diegu ikasleei puntuazio ikurrei eta ortografiari arreta handia jarritz berrit ere hiru txistek irakur ditzaten, jakinik, gero, txiste hauetako baten diktaketa idatzi beharko dutela euren koadernoan. Diktaketa bukatzean, berrikuspina eta autozuzenketa bultzatuko ditugu.

Bukatzeko, nola ez “txisteen unea” saioari tarte egingo diogu elkarri txistek intonazio eta keinu egokiak erabiliz kontatuz.

### **30. Zentzumenak: Dastamena**

*Lan egiteko era: Binaka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 21. or.*

Atal berri bat hastera goazenez, komenigarria da ikasnorabidera joan-etorria egitea.

Ondoren, ikasleek binaka jarrita, orrialde horretan agertzen den informazioa ulertu, irudiei behatu, esperimentua burutu, galderak erantzun eta bukaeran agertzen diren bi galderen inguruan hausnartuko dute. Ondo legoke bikotekide batek besteari, liburua aurrean duela ahoz azaltzea irakurri duen informazioa.

Bukatzeko, talde handian, elkarrizketa sortuko dugu esperientzia aipatzeko eta liburuko bi galderen inguruan gure iritzia emateko.

### **31. Zentzumenak: Usaimena**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 22. or.*

Usaimenaren azalpen testua eta irudia behatzeko, eta, ondorengo jarduera osatzeko tartetxo bat emango diegu ikasleei. Gero, talde handian ozeneko irakurketa elkarkaria egingo dugu.

Usaimena hizpide dugula, argi iezaiezue ikasleei erdararen ukipenari dela eta, askotan “usain ona” eta “usain txarra” esamoldeak erabiltzen ditugun arren, bigarren hau, nahiz eta erabilpena oso hedatua egon gaur egun, ez dela guztiz zuzena euskara jatorrean. Usaina beti gozoa edo atsegina da. Atsegina ez denean, jasangaitza adibidez, kiratsa esan behar dugu. Adibidez: “Zelako usain gozoa duen lore honek” “Hau da hau, dagoen kiratsa!”. Bi hitz hauen erabilpena indartzeko, bila itzazue hiztegian eta idatz itzazue ere zeuen gelako hiztegitxoan.

Bukatzeko elkarrizketa sortuko dugu usainen oroimenaren inguruan, zer den, zer sentimendu gogorarazten dizkiguten, zein usain ditugun oroimenean gordeta, zergatik... Elkarrizketa bide dugula, gorputzeko usainen inguruan ere mintza gaitezke, nolakoak diren, gustukoak ditugun edo ez... Galde iezaiezue baita ikasleei euren iritzia hurrengo ideia honen inguruan ere: kultura desberdinetako jendeak usain desberdinak maite ditu. Afrikarrek gizaki zuriak “usain gabekoak” deitzen gaituzte. Beste kultura batzuetan gorputzaren usainak gustuko dituzte gu berriz beti garbitzen edo estaltzen ibiltzen gara...

### 32. Ingelesa: experimentua, Dastamena eta usaimena. English: taste and smell

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 23. or.*

Jarduera hau egin ahal izateko aurrez eskuratu behar dituzu:

- 3 sagar zati ikasle bakoitzarentzat
- 3 patata zati txiki ikasle bakoitzarentzat
- Tipula zati txiki-txiki bat bakoitzarentzat

Beti bezala, ikasleei galdetu zertan ari diren lanean, eta egin dituzten lanak edo eta txokoetan duten materiala erakusteko eskatu.

*- So what have you been working on in this unit? Can you show / tell me what you have been doing?*

*- You have been working on taste and smell. What tastes do you like best? Chocolate or lemon? Salty crisps or coffee? Where on your tongue do you taste sugar? (At the front) Where on your tongue do you taste lemon? (At the back) And what smells do you like? And don't like?*

*- O.K. in English we're going to look at taste and smell. We are going to do an experiment. What do we need for our experiment? Let's read here on page 23.*

- Three pieces of apple*
- Three pieces of potato*
- And one piece of onion*

*- O.K. We are going to do the experiment all together step by step. You need your book and a pencil and the three pieces of food.*

*- What is the first step? Let's read the instructions. (Irakasleak ozenki irakurri ikasleek testua jarraitzen dutelarik).*

*- O.K. ready? Everyone eat a piece of apple. Now everyone eat a piece of potato. Could you tell the difference? Was it easy? Were the apple and potato tastes different? Yes. O.K. so we are going to write YES here in answer to the first question.*

*- O.K. Now we are going to move on to the second step. What do we have to do? Let's have a look. (Irakurri) We are going to do the same thing; eat the apple and then the potato but this time holding our noses. Are you ready? Let's go. Keep holding your nose.*

*- What did you taste? Was it easy to taste? Were the tastes very different? Not so easily. Quite easily. O.K. let's write what we found.(Nahi izanez gero, idatzi beharreko esaldia arbelean sortu guztiok batera)*

*- O.K. time for the final step. Let's see what we have to do. (Irakurri) We are going to do the same thing; eat the apple and then the potato but this time holding a piece of onion under our nose. Everybody ready. A bit of apple... a bit of potato ... a bit of apple.*

- *What did you taste? What happened? You couldn't tell.*
- Talde handian E DIFFERENCE.*
- Talde handian E TASTES WERE CONFUSED.*
- *O.K: let's write our conclusions here.*
- *So why do you think you could tell the difference easily in the first step but not so easily in step 2 and 3.*
- *Yes, because you need your nose to taste too. You need the sense of smell. Taste and smell work together. When you have a cold, you can't taste, can you?*

### **33. Zeharkako esaldiak**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka*

*Materiala: 5. lan-koaderno, 38. orrialde 43.era/CD-ROMa*

Talde handian, zeharkako esaldien (galdera, baiezkua eta ezezkoa, agindua) azalpen-testua irakurriko dugu eta hauen erabilpena ulertu dela ziurtatzeko, talde handian lehenik eta talde txikietan ondoren, ahoz trebatuko gara. Simulazio horretan hizlaria eta katarroa duenaz gain dauden kideek entzundako esaldiak oker daudela uste badute, zuzenketak egiteari ekin beharko diote. Bukatzean, ikasleek bakarka, euren lan-koadernoko ariketak osatzeari ekingo diete.

Gogoratu CD-ROMean zeharkako esaldiak lantzeko ariketak dituzuela.

### **34. Irakurzaletasuna: “Nik erremerre hitz egiten dut”**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 24. or.*

Talde handian 24. orrialdea irakurriko dugu eta taldeko iritzi-erota martxan jarriko dugu aurkezten zaizkigun galderen inguruan hausnarketa egiteko. Bukatzean, irakasleak “Nik erremerre hitz egiten dut” ipuinaren hasiera irakurriko die ikasleei ozenki. Ez ahaztu ikasleak hirugarren mailan badaude ere gustuko dutela ipuinak entzutea, horregatik, sor ezazue giro polita ipuina modu egokian kontatzeko eta hartaz gozatzeko (lurrean biribilean eserita...). Haurrengan jakin-mina sortuko dugu era horretan. Ondoren, haur bakoitzak bere liburua irakurtzen jarrai dezake edota irakasleak jarraitu irakurtzen taldeari. Lehen aukera erabakitzen baduzue, eman egun batzuk haurrei eta egunero irakurketari buruzko komentarioak egin interesa eta erritmoa mantentzeko. Bukatzean, irakurritakoa kontuan izanik, iritzi-erota antolatuko dugu, hurrengo hau hizpide izanik:

- RR ez aipatzeko estrategia; fonema hori ez duten beste hitz batzuk erabiltzea da, hau da aipatu hitzen “sinonimoak” erabiltzea. Estrategia ugari erabiltzen ditugu bizitzan zehar gure akatsak saihesteko, askotan defentsa mekanismoak bihurtzen direnak. Gure akatsak onartzen ikasi behar dugu, denok baititugu akatsak eta bakoitzarentzako berea besteentzako euren bezain zamatsua eta garrantzitsua baita.

### **35. Sinonimoak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: 5. lan-koadernoa, 44. eta 45. or./CD-ROMa*

Ikasleek bakarka lan-koadernoko jarduerak osatuko dituzte, gero, talde handian zuzenketa egiteari ekingo diogu.

Sinonimoen lanketa sakontzeko hainbat ariketa aurkituko dituzue CD-ROMean.

### **36. Ipuinaren egitura eta ahozko narrazioarako gidoia**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

Unitate honetan ipuinaren egitura aztertzen jarraituko dugu. Baina oraingoan egituraz baliatuko gara ahozko kontaketa eta narrazioa antolatzeke gidoia osatzeko.

Idatz ezazue ipuinaren egitura arbelean (ikus Txanela 3.1, 34. eta 35. or.) eta guztion artean zati bakoitzeko datu eta gertaera aipagarrienak adierazi eta arbelean idatziko ditugu. Honela gure ahozko narrazioarako gidoia prest izango dugu. Esan hurrei eurek kontatuko duten ipuina, irakurri duguna baino dezente laburragoa izango dela. Hala ere, saia daitezela graziaz kontatzen eta ahoskerak pixka bat imitatzen.

### **37. Zentzumenak: Entzumena**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 25. or.*

Atal berrian murgildu aurretik, ikasnorabidera joan etorria egingo dugu. Orain arte egindakoa ikusi eta baloratu ondoren, atal berriari so egingo diogu.

Tartetxo bat emango diegu ikasleei entzumenari buruzko azalpenak irakurriz eta irudiak begiratzuz jarduera osatu eta nola entzuten dugun jabe daitezen. Prozesua guztion artean argituko dugu eta ikasleek txandaka eta ahoz prozesua beren hitzekin adieraziko dute. Ondoren, keinu bidezko komunikazioaren inguruan elkarrizketa sortuko dugu.

### **38. Dramatizazioa**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 25. or.*

Egoera hauek eta beste batzuk adieraz ditzakete keinu bidez:

- Gose naiz
- Zerbait idazten ari naiz edo idatziko dut
- Maite zaitut
- Min handia hartu dut
- Ez dut entzuten...

Ikasleek banaka, hainbat egoera asma ditzakete, keinu bidez adierazi eta besteek asmatu egin beharko dute esan nahi duena.

### 39. Entzumena zorrozten

*Lan egiteko era: Talde handian*

Talde handian elkarrizketa sortuko dugu eta jarduera batzuk jarriko ditugu martxan entzumenaren inguruan hausnartzeko eta haren funtzionamenduari buruzko kontzientzia izateko:

- *Inoiz jarri al zara pentsatzen zer nolako soinuak entzuten dituzun? Orain duzu aukera! Bi minutuz, isil isilik egonik, apunta itzazu folio batean entzuten dituzun soinu ezberdin guztiak.*
- *Gelan gaudenean milaka soinu egoten dira aldi berean baina batzuetaz ez gara jabetzen, zergatik uste duzu izango dela ?*
- *Entzundako soinuak bi multzotan sailkatuko ditugu. Soinu edo zarata izatearen arabera. Ba al dakizue zein ezberdintasun dagoen bata eta bestearen artean? Saia daitezela euren erara definitzen. Ondoren hiztegian begiratzeko aukera eta gure hiztegian kopiatzeko aukera ere izango dugu.*
- *Ba al dakizue zer den entzumen aktiboa eta entzumen selektiboa? Adibideren bat jarri iezaiozue kontzeptu bi hauek uler ditzaten (tren geltokian bizi den pertsona, kanpai dorreko erlojua... hasieran entzun, gero ez).*

Entzunezko memoria zer den eta nola funtzionatzen duen jakiteko jarduera txiki bat ere egin dezakezue. Norbaitek esaldi luze bat edo motibo musikal bat esan eta besteek errepikatzea. Horrekin bi froga egin daitezke, entzundakoa memoriak epe luzean edo laburrean gordetzen duen jakiteko; entzundakoa jarraian errepikatu edo handik eta ordu betera, egun batzuetara...

### 40. Zentzumenak: Ukimena

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*  
*Materiala: Ikaslearen liburua, 26. or.*

Tartetxo bat emango diegu ikasleei orrialde horretan agertzen diren jarduerak irakurri eta osatzeko, gero elkarrizketa sortuko dugu egindakoaren inguruan eta ikasleek idatzitakoa zuzentzeko aukera izango dute, gaizki erantzun baldin badute behintzat.

### 41. Eskulturak

*Lan egiteko era: Talde txikian*

Ukimenezko memoria lantzeko jolas bat egitea proposatuko diegu ikasleei.

Hiruko taldeak egingo ditugu. Jolaskideetako bat eskultorea izango da, baina itsua, beraz begiak estali egingo dizkiogu zapi batekin. Bestea berriz, eskultura izango da, eta hirugarrena oraindik landu gabe dagoen harri zati bat. Eskultura den jolaskidea berak nahi duen posizioan jarriko da, adibidez, eskuak gora altxatuta, eta lurtean eserita dagoela, burua makurtuta. Eskultoreak bere eskuekin ukitu egin beharko du eta haren posturaz jabetu ondoren, irudia oroimenean gorde, gero eskultura horren kopia egin beharko baitu, hau da, beste jolaskidea posizio berean jartzea lortu beharko du. Behin eskultura bukatua duenean, zapia kendu eta baloratu egin beharko du bere lana, hau da, eskulturaren errepika egitea lortu duen edo ez. Rolak aldatu egingo ditugu ikasle guztiak eskultore izateko aukera izan dezaten. Jolasa bukatzean, elkarrizketa sortuko dugu esperientziaren inguruan, zailtasunen inguruan hitz egiteko, zentzumenen garrantzia azpimarratzeko...

#### 42. Ukimena eta usaimena lantzeko jolasa

*Kudeadeta mota: Binaka*

Jolas honen bidez, ukimena eta usaimena landuz, garatu eta zorroztu egin nahi ditugu.

Ikasleak binaka jarriko dira, bat itsua izango da eta bestea haren gidaria. Itsuak begiak zapi batekin estalita izango ditu, besteak eskutik oratuta, berak aukeratutako toki batetik eramango du, bidean aurki ditzakeen enbarazuak gainditzen lagunduz, beste lagunekin tupust egitea saihestuz, etab. Gidaria, halako batean gelditu egingo da berak nahi duen edozein elementuren aurrean (hosto bat, harri bat, liburu bat, plastilina...) eta orduan bi aukera izango ditu, hitzak erabili gabe, bere jolaskideari, elementu hori ukitzen eta sentitzen lagundu beharko dio, edota bestela, elementu hori usaintzen lagundu beharko dio. Helburua ez da itsua denak elementu hori zer den asmatzea ezta jakitea ere, beste barik, ukimena (laztasuna, biguntasuna, hoztasuna) eta usaimena sentsibilizatzea baizik. Bukatzean, elkarrizketa sortuko dugu esperientziaren inguruan.

#### 43. Entzunaldia: V. Willians : Fantasia de Greensleeves

*Lan egiteko era: Talde handian/Binaka*

*Materiala: CDa, 15. pista*

Ukimena, beroa, lazatasuna, hotza etab. sumarazten dizkigun zentzumena izateaz gain, gozamina eta lasaitasuna ere transmititzeko gauza da. Hori frogatzeko jarduera honetan masajea ematea eta hartzea proposatzen dizuegu. Masajea behar bezala gozatzeko, musika lasai batekin lagunduko dugu, V. Willians-en "Fantasia de Greensleeves"-ekin hain zuzen ere. Baina hasi aurretik, beti bezala, gure konpositoreen txokoa martxan jarriko dugu, konpositorearen eta baita obra beraren inguruko informazioa bilatuz (liburuetan, interneten...) eta informazio horren inguruan elkarrizketa sortuz.

Ondoren, musika entzuteari ekingo diogu, lurrian etzanda begiak itxita musikaz gozaten eta lasaitzen saiatuko gara. Gero, jarraian binaka jarrita masajea emateari ekingo diogu hurrengo aholkuak kontuan izanik.

Masajea prozedura terapeutikoa da, gorputzaren kanpoaldea igurtzi, zapaldu eta kolpetxoak jotzean datzana. Hori da zuek egin beharko duzuen, zuen lagunaren bizkaraldea, ipurtaldea eta hankak gozoki igurtzi, zapaldu eta kolpetxo txikiak eman. Masajearen helburua tentsioak askatzea eta gozamina sortzea da, eta horretan lagundu beharko diogu gure lagunari. Askotan, masajea ondo ematen jakitea baino garrantzitsuagoa da, masajea ematen ari denak, masajea hartzen ari denaren benetako ongizatea nahi izatea, hori transmititu egiten baita. Beraz, musikaren erritmo lasiarekin bat eginez, masajeak emango ditugu. Masajea eman, lagunari ondo egoten laguntzen ari garenaren sentsazioaz, eta masajea hartu, berriz, lasai eta gustura gauden sentsazioaz. Musika bukatzean berriz jarriko dugu, eta orain, masajea eman duenak masajea hartu egingo du.

Bukatzean, esperientziari buruzko elkarrizketa sortuko dugu:

- *Nola sentitu zarete masajea ematean? Zergatik? Eta hartzean? Zergatik?*
- *Zer duzue nahiago, hartzea edo ematea? Zergatik?*
- *...?*

Nahiz eta pertsonen arteko zuzeneko ukimena ez den ematen, bada goma-espumarekin ematen den masaje mota bat, oso atsegina eta lasaigarria dena, eta tentsioak askatzeko oso baliagarria dena. Aukera baduzue, proba ezazue.

Adin hauetan ere, ikasleak tentsioak izaten dituzte euren gorputzean, eta eskertzen dituzte horrelako ekintzak. Beraz, bai masajeari, eta baita aurrerago aurkituko dituzuen lasaitze-ariketei ere egin iezaiezue lekua zuen ikastorduetan, egoki ikusten duzuen guztietan.

#### **44. Azalari behatzen**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Binaka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 27. or.*

Ikasleek bakarka orrialde osoa irakurtzeko tartea izango dute. Ondoren, taldeko irakurketa egingo dugu. Gero, ikasleek binaka euren azala luparekin behatzeari ekingo diote.

Bukatzeko arraza ezberdinen ezaugarri orokorren inguruko elkarrizketa sortuko dugu (azalaren kolorea barne). Arrazen artean, eta arraza bereko lagunen artean dauden ezberdintasunak aipatzeaz gain berdintasunak ere aipatu.

Eta arrazekin gabiltzan honetan arrazakeria zer den ere galdetu egingo diegu. Bila ezazue hiztegian, eta behin esanahia argi dagoenean, eman dezatela ikasleek euren iritzia horri buruz.

#### **45. Jolasa**

*Lan egiteko era: Talde txikian*

Gela talde txikitik banatuko dugu. Talde bakoitzak zaku edo poltsa bat hartu eta bertan hainbat elementu sartuko dituzte beste taldekideek ikusi gabe. Gero, taldeen artean poltsak trukatu dituzte. Jolasaren helburua, begiak itxita eta ikusmena erabiliz, poltsa barrutik ateratako elementu bakoitza zer den asmatzea da.

Jolas hau gelako elementuekin egin daiteke edota alde aurretik ikasleei aurkeztuz gero, etxetik ekarritakoekin, bigarren honek aukera ematen du hainbat izaeratako elementuekin egiteko jolasa (janariak, naturatik hartutako elementuak...).

#### **46. Ba al zenekien...**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 3, 44. or.*

Talde handian, bitxikeria bakoitza banan-banan irakurriko dugu, ulertuaz batera irakurritakoaren inguruan taldean mintzatzeko (iritzia eman, ezaguna dugun beste informazio batekin erlazionatu...).



#### **47. Zentzumenak: Ikusmena, “Kutxa iluna”**

*Lan egiteko era: Binaka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 28. eta 29.or.*

Tarte bat emango diegu ikasleei, binaka, ikusmenari buruzko azalpen-testutxoak eta esperimentera bera irakur ditzaten. Gero, bien artean, esperimentera burutzeko beharrezko dituzten materialak nola lortu eta nork ekarriko dituen adostuko dute, hau da, arduren banaketa egingo dute. Interesgarria da baita, begi niniaren jokabidea behatzea linterna batekin argia ematen zaionean, beraz, linternak ere ekar ditzatela ikasleek gelara esperimentera hori egiteko. Behin materiala bildua dutenean, kutxa iluna osatu dezakete. Esperimentera ondo atera dadin, poteari kanpoaldetik jarritako kartoi meheak oso luzea izan behar du. Kutxa iluna egiten duzuen egunean, gerta liteke ikasleren bati materialak ekartzea ahaztu izana, hau hala balitz, talde handian, elkarrizketa sor ezazue ahaztearen arrazoen inguruan (arduragabekeria, memoria falta...). Hitz egin ezazue horrek suposatzen duenaz (bikotea arduratsua izan bada ere, esperimentera ezin burutu izana material faltagatik, haserreak, kulpabilitate sententzia...) eta baita zein estrategia den egokiena, horrelakorik berriro gerta ez dadin. Esperimentera burutu ostean hitz egin ezazue ateratako ondorioei buruz.

#### **48. Argazkiak: pertzepzio jolasa**

*Lan egiteko era: Binaka*

Ikusi, gauza asko ikusten ditugu egunean zehar, baina ikusitakoaren artean pertzepitua, sarritan gutxi. Pertzepzioa landu nahian hurrengo jolasa egitea proposatuko diegu ikasleei.

Binaka jarrita jolaskideetako bat argazki kamera izango da eta bestea berriz argazkilaria. Argazki kamerak begiak itxita izango ditu, objektiboak tapa jarrita balu bezala, ez du ezer ikusiko. Argazkilaria bere argazki kamerari eskutik helduta, jolastokian, gelan edo guk aukeratutako toki jakin batean zehar argazki baten bila ibiliko da, eta argazkirako gustukoa duen zerbait ikustean, argazkia aterako dio. Argazkia ateratzeko, bere kamera den jolaskidearen burua, argazki horretan agertuko denari begira jarriko du, argazkia enfokatuko balu bezala. Ondoren, buru gainean eta kokotsean esku bana jarriaz “klik” soinua ateratzean, argazki kamera den jolaskideak begiak irekiko ditu 10 segundoz, ikusten duenari arretaz behatuz eta han ikusitakoaz gozatuz. Bost bat minutuz jolastu ondoren, jolaskideek rola aldatuko dute.

Bukatzean elkarrizketa sortuko dugu esperientziaren inguruan: zein zailtasun sortu den, zein argazki izan duten gustukoaren, beti ikusten dituzten gauzak beste era batera pertzepitua dituzten edo ez, gustura jolastu duten, lagunak gidatzean seguru eta lasai sentitu diren edo ez...

#### **49. Abestia: Delirium tremens**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: CDa, 16. pista*

Delirium Tremens euskal taldearen “*Ikusi*” abestia entzungo dugu, musikaz eta erritmoaz gozatuz. Ondoren, letra eta mezuaren inguruan hitz egingo dugu.

Gero, diktaketa egingo diegu ikasleei eta talde handian, S, Z eta H fonemen behaketa bideratuko dugu, autozuzenketa bultzatuz:

“Ikusi , ikusi eta ikasi.

Ez pentsa ezeren beharrik daukazula heltzeko hire mugara.

Entzun, argi eta garbi entzun.

Hire inguruan esaten diren gauza guztiak entzun.

Ikusi, ikusi eta ikasi.

Ez esan gero inoiz aukerarik ez duzula izan.

Heldu, ondo heldu.

Ez galdu bidean inoiz berriz ez duzun edukiko gauzak

Ikusi eta ikasi,

Eta ondo entzun,

Hobeto heldu,

Hobeto heldu...”

Bukatzeko, musikarekin batera abesteari ekingo diogu.

#### **50. Ilusio optikoa**

*Lan egiteko era: Bakarka/Binaka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 30. eta 31. or.*

Ikasleek ilusio optikoari dagozkion bi orrialdeak irakurri eta jarduerak bakarka nahiz binaka egiteari ekin diezaiotela. Gero, esperimentuaren bidez ateratako ondorioez hitz egingo dugu.

Bukatzeko ikusmen arazoei buruzko elkarrizketa sortuko dugu. Hainbat izango dira gelan betaurrekoak erabiltzen dituztenak, eman iezaiezue aukera gelan adieraz dezaten zein den duten ikusmen arazoa eta zein izenekin ezagutzen den, zer suposatzen duen betaurrekoak erabiltzeak (oztopoak...), etab.

Elkarrizketa bideratzeko azken galderan “daltonismo” hitza agertzen da. Bila eta aurkitu ezazue ikusmen akats horri buruzko informazioa, hiztegian, entziklopedietan, etxean galdetuz...

## 51. Irakur teknikak

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua 32. or.*

Azkarrago eta hobeto irakurtzen ikasteko, ikasleek bakarka liburuan aurkituko dituzten bi irakur jardueretan trebatu ondoren, talde txikitara erakutsi beharko dute euren trebezia.

Bigarren jarduerako hiru esaera zaharrek “*Erranak erran*” atalari bidea egingo diete. Kopia itzazue arbelean esaerok, argitu ezazue hauetariko bakoitzaren esanahia eta bukatzeko ekin iezaiozue antzezpenari.

## 52. Ortografia lantzen

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: 5. lan-koadernoan, 46. or.*

Ikasleek bakarka 46. orrialdean agertzen den ortografia jarduera egiteari ekingo diote, beharrezkoa balute hiztegiari begiratu. Jarduera hau egiteko hiztegi bat baino gehiago beharko dituzue gelan, hitza bera nola idazten den jakiteak besteko garrantzia baitu hiztegiaren erabilerak berak. Bukatzean esan iezaiezue ikasleei ondo behatzeko hitz bakoitza nola idazten den, gorde dezatela ikusmeneko memorian, ondoren egin beharko duten diktaketan hitz horietako batzuk azalduko baitira. Diktaketa bukatzean bultzatuz ezazue autozuzenketa, hau da, ikasle bakoitzak ziurtatu dezala idatzi dituen hitzak ondo idatzita daudela, bai kodeari dagokionez, baita ortografiari dagokionez ere, horretarako hiztegiari erabiliz.

### Diktaketa

*“Mertxek atsegin zuen gauzak goitik ikustea. Horregatik batzutan mahai gainera igotzen zen, besteetan aulki gainera, bestetan... Behin zuhaitz gainera igo zen, jausi eta zauri ederra egin zuen belaunean. Eskerrak bere ama erizaina zen, berak osatu baitzion zauria. Ordutik hona gehiago gozatzen du bere begien altueran dauden gauzak ikusten.”*

## 53. Hitz bikoteak

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: 5. lan-koadernoan, 47. or.*

Ikasleek bi hitz aukeratu eta euren artean erlazionatu ondoren, esaldi bat osatu beharko dute. Jarduera bakarka osatu ondoren, taldean irakurriko ditugu hitz berdinak erabiliz osatu dituzten hainbat esaldi. Bukatzean, hitz poltsa handi bat idatziko dugu arbelean eta hitzak erlazionatuz esaldi xebleak egingo ditugu. Gogoratu osatutako esaldia astakeria bada ere, esaldiaren egitura zaindu egin behar dutela, zuzena behar duela izan, alegia.

#### **54. “Ikusi nuenian” abestia**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Irakurgaiak 3, 45. or.*

Ikasleek bakarka, ezaguna den euskal tradizioko abestia irakurriko dute, gero taldean irakurriko dugu eta ulertzen ez dituzten hitzak argituko ditugu, gogoratu hiztegiaren erabilera, eta gelako hiztegian leku egin diezaiokezuela. Taldean abesteari ekingo diogu ondoren, lehenengo letra barik abesten saiatuko gara, gero letrarekin batera. Gero, ikasleek letra aurrean dutela, hark adierazi bezalako irudia egingo dute. Bukatzeko elkarrizketa sortuko dugu:

*- Erraztu egin al du irudia egiteak letra gogoratzea? Irudiak izan al daitezke oroimenari laguntzeko estrategia?*

#### **55. Artelana: Goya**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 33. or.*

Goyaren biografian irakur dezakezuen bezala, gaixoaldi baten ondorioz gorra geratu zen. Hala ere bere beste zentzumenei esker mundu mailako artista handien artean koka dezakegu zalantzarik gabe.

**Goya y Lucientes, Francisco de.** Pintore espainola (Fuendetodos, Zaragoza, 1746 - Bordele, 1828), grabatugile eta erretratugile aparta. Madrilgo Tapizgintzako Erret Fabrikarako Tapiz-Kartoiak egin zituen (1775-92), kostunbristak eta neoklasikoak. 1780tik aurrera San Fernando Akademiako kide eta nobleziaren erretratugilea izan zen. 1786an Karlos IV.aren ganbara-pintore egin zen. Gaixoaldi baten ondorioz erabat gortu zen 1792an. Orduz geroztik, pintatzerakoan era barnerakoiagoan, irudimen handiagoz, konbentzionalismoak baztertuz eta ikuspegi kritikoz lan egin zuen (Eroetxea, Sutea, Kapritxoak). 1799an gorteko lehen pintore izendatu zuten (Karlos IV.aren familia, 1800; Maja jantzia, 1803; Maja biluzia, 1805). Independentzi gerraren aurka azaldu zen errealismo dramatikoan (Gerraren hondamendiak; Maiatzaren 3ko fusilamenduak; Mamelukoen aurkako borroka).

#### **56. Gu ere gizakion adierazpena (aurpegia) lantzen**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Material osagarria*

Goyak, gizakion handiuste hutsalak adierazi zituen. Guk orain, gizakiok aurpegiaren bidez adierazten ditugun hainbat egoera eta sentimendu nola adieraz ditzakegun ikusiko dugu eta ondoren, gure marrazkietan egoera eta sentimendu horiek islatzen saiatuko gara. Beharazi ikasleei aurpegiko marrazkietan nola daude adierazpen bakoitzean. Ondoren, marraz ditzatela eurek aukeratutako egoera eta sentimenduak. Lehen frogak material osagarrian egin daitezke eta gero, paper zurian aurpegiak gain gorputz osoa eta hondoa ere marraz eta margotu dezaketelarik.

### **57. Nolako sudurra, halako aurpegia**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Material osagarria*

Oraingoan, sudurrari egingo diogu so eta aurreko jardueran egindako prozesu bera errepikatuko dugu.

### **58. Guztiok ez dugu burua forma berekoa**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Material osagarria*

Sudurrari so egin ondoren, buruaren formari dagokion behaketa eta adierazpena landuko ditugu orain aurreko jardueretan erabilitako prozesu berdinarekin.

Lan hau bukatzean, laugarren pauso batean, aztertutako hiru alderdiak konbinatuz (sentimenduen adierazpena, sudurrak eta buru formak, eta hauen inguruko osaketa posibleak) marrazki dotore-dotoreak egiten saiatuko gara. Koka ditzatela beren pertsonaiak egoera jakin batean eta ea adierazkortasunik lortzen duten.

Marrazki hauekin guztiekin (eta Goyaren irudi batzuk eta biografia jartzen badituzue hobe) hainbat gauza egin ditzakezue:

- Norberak bere bilduma osatu, azal eta guzti etxera eramateko.
- Erakusketa bat antolatu.
- Gelako liburutegian uzteko bilduma osatu.

### **59. Ttonttorpeko Mei Li**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 34. or./5. lan-koadernoan 48. eta 49. or.*

Talde handian Mei Liren deskribapena irakurri ondoren, deskribapenari buruz dakiten guztia esateko adieraziko diegu ikasleei. Eurek esan ahala, arbelean idatziko ditugu esandakoak, kontzeptu mapa balitz bezala. Erdiko borobilean deskribapena idatziaz eta harekin zerikusia duten kontzeptuak idatziz eta loturak adieraziz. Bigarren mailan sekuentzia polita landu zuten deskribapenaren inguruan eta hirugarren maila honetan ere, pertsona izan ez bada ere, leku deskribapena landu dutenez, eta komunean hainbat elementu dituztenez, ziur aurre-ezagutza ugari dituztela ikasleek honen inguruan, beraz, aktiba itzazue.

Behin jarduera bukatua, lan-koadernoan dagoen konparazioen azalpen-testua irakurriko dugu taldean eta ondoren ikasleek bakarka, osatzeko jarduerak egingo dituzte, gero taldean zuzenduko ditugunak.

Gogoratu CD-ROMean hainbat direla konparazioa lantzeko dituzuen jarduerak.

## 60. Ipuinak idazten

*Lan egiteko era: Binaka/Talde handian*

*Materiala: 5. lan-koadernoan 50., 51. eta 52. or.*

Ikasleek binaka lan-koadernoan proposatzen zaizkien jardueren sekuentzia egin ahala ipuina egiteko gidoia osatuko dute. Gero, bakarka gidoia jarraituz ipuina ekoizteari ekingo diote, horretarako beharrezkoak diren hitzak eta hizkuntza formak aukeratuaz eta ipuinen txokotik behar dituzten baliabideak hartuz eta erabiliz.

Berrikuspena bultzatu ondoren, edizio lana egin dezakegu. Ikasleak irakasleari ipuinaren zirriborroa erakutsi ondoren, irakasleak egoki ikusten dituen zuzenketak egitera bultzatuko du ikasle bakoitzari (esaldiaren egitura, ortografia, koherentzia maila, kohesioa...). Ikasle bakoitzari nabarmenenak zaizkion zuzenketak egin. Ez ahaztu zuzenketa guztiak batera egiteak ikaslea nahas dezakeela, pausoz pauso zuzendu behar da testua. Gainera, idazketaren ezaugarri guztiak batera zuzentzea gehienetan ez da efikaza izaten eta desmotibagarria izan daiteke kasu askotan, beraz ikasle bakoitzari egoki ikusten diozuen zuzenketa egin. Ondoren, ipuina editatu dezan.

## 61. Bitxikeriak

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: Irakurgaiak 5, 46. or.*

Talde handian bitxikeriak banan-banan irakurriko ditugu, ulertuz batera irakurritakoaren inguruan mintzatzeko (iritzia eman, ezaguna dugun beste informazio batekin erlazionatu...) elkarrizketa sortuz.

## 62. Komikiak: Aireari elur eta gabon usaina dario!

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 35. or.*

Hasteko izenburuaren inguruko elkarrizketa sortuko dugu:

- *Zer esan nahi du: Aireari elur eta gabon usaina dario! Hainbat esamolde egin ditzakezue dario aditzaren erabilpenean trebatzeko, adibidez: Kandelari negarra dario, ume hori mukiak dariola dago...*

Ondoren, ikasleei komikia bakarka irakurtzeko tartea emango diegu elkarrizketa sortu aurretik:

- *Zer adierazi nahi dute “loromari” eta “marinerbio” hitzek? Ekar ditzagun gogora aurreko gaietan modu berean osatuta zeuden eta agertzen ziren hitzak: Maribentanas, mariberandu... Aukera polita duzue formula bera erabiliaz hitz berriak asmatzera jolasteko.*

- *Hirugarren binetan gure pertsonaiak Olentzeroren kanta abesten ari dira, ezaguna al duzue? Bigarren mailako CDan agertzen zen, Olentzeroren kanta rock estiloan. Eska iezaiezue zinta eta abes ezazue.*

- *Zergatik uste duzue esaten duela Morganek, Xabier ez dagoela oraindik guztiz osatua?*

- *Laugarren binetan, Kleo eta Mari abesten ari diren bertso horren doinua, Olentzeroren abestiaren doinu rockero bera da, abes ezazue.*
- *Kleok Martini mehatxu egiten dio esanez, kontuz ibiltzeko berarekin. Martinek ostera, "Nik ere maite zaitut Kleo!" erantzun dio, zer adierazi nahi dio horrekin? Noiz erabiltzen da esamolde hau? Zein helbururekin? Intonazio batekin edo bestearekin esanda esanahia bera al da?*
- *Pertsonaia guztiak ari dira elurrezko panpina egiten kalean azken binetetan, Mari bera ere. Mari elbarria izanik, uste duzu besteak bezala gozatzeko gai izango dela? Zergatik? Noren esku dago gozamina?*
- *Azken binetan, Martinek panpinari buruan txapela jartzean, unitate honen izenburua aipatzen du "Urte askoan, txapela kaskoan!". Norbaitek galdetuz gero esaera honen esanahia, nola adieraziko zenioke?*

Solasaldiaren ostean, pertsonaien banaketa adostu eta talde handian ozeneko irakurketari ekingo diogu. Hizkuntzaren baliabideei garrantzia emango diegu. Komenigarria da ikasleei birgogoratzea, arreta berezia jarri beharko dietela elementu prosodikoei (intonazioa, etenak, bolumena...), ozeneko irakurketan, testua zuzen irakurtzeaz gain doinuaren garrantzia azpimarratuz.

### **63. DVDA**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: DVDA*

Beti bezala, DVDA ikustera joan aurretik argitu egingo diegu ikasleei zein den hau ikustearen xedea: prebentzio-kanpaina egiteko ideiak hartzea. DVD honetan, bizkarrezurra, ikusmena, entzumena, higiena eta abarren inguruko informazioa ematen digute, hau da geure burua zaintzeko hartu beharreko neurriak eta arazoei aurre egiteko aholkuak.

Behin xedea argitu ondoren, DVDA ikusiko dugu, argibideak emateko beharrezko ikusten ditugun geldiuneak eginaz.

Bukatzean ikusitakoaren inguruko elkarrizketa sortuko dugu.

### **64. Proiektua gauzatzen**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Binaka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 36. eta 37. or.*

Talde handian kanpainaren izaera nolakoa izango den eta martxan jartzeko prozedura irakurri eta argituko dugu, gero, lanari ekiteko.

Kanpaina bukatzean azter itzazue ikusleagoari betetzeko eskatutako inkesten erantzunak eta sor ezazue elkarrizketa ondorioak ateratzeko eta zuen lana baloratzeko.

## **65. Sintesia**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 38.,39. eta 40. or.*

Sintesi-orrien helburua, ikasitakoaren errepassoa egiteaz gain, hainbat alderdi ebaluatzeko tresna eskaintzea ere bada. Ikasleek sintesi-orri hauek bete aurretik unitatean zehar ikusi eta ikasitakoaren errepassoa egitea aholkatzen dizuegu.

Nola nahi ere, orriotan, landutakoaren alderdi batzuk baizik ezin dira errepasatu. Hau da, dramatizazioaren, plastikaren eta ahozko hizkuntzaren inguruan landu diren edukiak, prozesuan zehar (hau da unitatean zehar dagozkion jarduerak burutzerakoan) behatu beharko dituzue. Ez baitu zentzu handirik, hainbat prozesu luze, azken unean eta behaketa egiteko asmoz, berriro errepikatzeak. Hainbat ekoizpen-lan luzerekin ere gauza bera gertatuko zaigu.

Bukatzean talde handian elkarrizketa sortu; gaia, unitatea, eurek zekitena eta ikasitakoa, burututako lanaren nolakotasunak, gogoia, gozamina, talde lanean arduen banaketa, partaidetza, primeran irten dena, hobetzeko alderdiak, bakoitzak hartuko dituen konpromisoak... era eraikitzaile batean baloratzeko edota kritikatzeko. Ikasnorabidea duzue horretarako sintesi tresna lagungarria.

## **66. Hizki-zopa eta hitz gurutzatuak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: 5. lan-koadernoan, 53. eta 54. or.*

Errepaso modura, ikasleek bakarka, lan-koadernoko hizki-zopa eta hitz gurutzatuak osatuko dituzte. Hauen osaketarako erabili dituzten estrategiak idatziz adieraz ditzatela. Gero, taldean adieraziko ditugu estrategiak.

## **67. Definizioak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: 5. lan-koadernoan, 55. or.*

Lehenengo mailan hasita, hitz gurutzatu ugari osatu izan dituzte ikasleek, definitziorik abiatuta, hitza edo kontzeptua asmatuz. Jakina da definitzea ez dela ekintza erraza, horregatik uste dugu hirugarren maila, une aproposa dela definizioen sekuentziatxo batekin, definizioen mundura heltzeko bidea hastea. Jarduera honetan, belarria hitza definitu beharko dute ikasleek, horretarako zaku barruan aurkituko dituzten hitzen artean definizioari dagozkionak aukeratuz. Gero, hitza edo kontzeptua jakinik, definitziorik zehatzena aukeratzeari ekingo diote. Jarduera hau bakarka egin dezatela, gero, talde handian zuzentzeari ekin eta baita gure definizioen aukeraketa justifikatzeari ere.



## **68. Jolasak**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 5, 47. eta 48. or./CDa, 17., 18. eta 19. pistak*

Urtea amaitzear dagoenez, eta oporrak hartzekotan gaudenez, zer hoberik bada, jolasekin amaitzea baino? Taldean zotz egiteko abestiak irakurri, letrak ulertu eta CDarekin batera buruz ikasiko ditugu. Gero, jolasekin beste hainbeste egingo dugu jolasteari ekin aurretik.

## **69. Gabonak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 5, 49. or.*

Talde handian nahiz bakarka Joxan Ormazabalen olerkia irakurri eta gozatuko dugu.

# Musikako lan-koaderno

## 3.1 ALTUERA

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koaderno, 3.1. fitxa/CDa, jarduerak, 15. pista*

Zortzi musika-tresna aukeratu eta hauen grabaketa egin dugu. Horietako lauk, melodiak sortzeko aukera ematen digute, hainbat nota jotzeko aukera alegia. Gainontzeko laurak, ez. Ozenago edo eztiago jo ahal izango ditugu, baita azkarrago edo mantsoago ere, baina tonuz aldatzea ezinezkoa egingo zaigu, ezin izango dugu hotsen altuera moldatu. Baina aipatu berri duguna, esperimintatuz eta musika-tresnak erabiliz ulertzen da. Agian, horretarako aukerarik ez duzue izango gelan, beraz, hemen duzue grabazioa.

Hauek dira, CDan agertzen diren ordenaren arabera, grabaturiko zortzi musika-tresnak:

1. Panderoa
2. Eskusoinua
3. Triangelua
4. Txindatak
5. Gitarra
6. Danbolina
7. Txirula
8. Xilofonoa

Entzundakoaren arabera, 1etik 8ra ordenatu beharko dituzte ikasleek, eta ondoren zenbaki horiek kokatu bi aukeretan: hainbat altueratako hotsak sor ditzaketenak eta beti altuera berdina ematen duten tresnak.

Hausnarketa txiki bat eginaz, bururatzen zaizkizuen hainbat eta hainbat musika tresnekin zerrenda luzeak osa ditzakezue. Aukera polita musika-tresna berrien izenak ezagutzeko.

## 3.2 TXIRULA JOTZEN IKASTEN: "XAKA XAKAPON"

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koaderno, 3.2. fitxa/CDa, jarduerak, 16. pista*

Lana bihurritzen ari zaigu. Abesti hau hiru notaz osatua dago. Erritmoari begirada bat emanez, kortxea asko ageri direla ikusiko dugu. Solfeo aldetik, eta txirula jo behar dugula kontutan harturik La nota da berrikuntza.

Hau dela eta, jolas moduko ariketa bat proposatzen dizuegu. Lehenik, denok batera pentagramaren azterketa azkar bat egingo dugu. Ondoren, lehen errepasoa emango diogu melodia honi. Jarraian, irakasleak marretan dauden notak irakurriko ditu, Sol eta Mi alegia. Tarteetan kokatuak dauden notetara iristean, abesti honetan La bakarrik, ikasleen txanda izango da.

Ondorengo urratsean, denok batera irakurriko dugu baina La ez du inork esango, hau da, isilik pasako dugu. Ariketak oso sinplea dirudi baina arreta jartzen ez duenak huts egin eta nabarmen geldituko da.

Txirula jotzeko garaian ere, mota honetako jolasak egiten jarrai dezakezue. Ez ahaztu ohiko "entrenamenduak" egitea.

ADIBIDEAK:

<b>IRAKASLEAK</b>	<b>IKASLEEK TXIRULAZ</b>
θ θ ε ε θ LA LA LA LA LA	θ θ ε ε θ LA LA LA LA LA
θ θ ε ε θ SOL SOL SOL SOL SOL	θ θ ε ε θ SOL SOL SOL SOL SOL
θ θ ε ε θ MI MI MI MI MI	θ θ ε ε θ MI MI MI MI MI
θ θ ε ε θ SOL SOL SOL SOL MI	θ θ ε ε θ SOL SOL SOL SOL MI
θ θ ε ε θ SOL LA SOL SOL MI	θ θ ε ε θ SOL LA SOL SOL MI
θ θ ε ε θ MI MI MI MI SOL	θ θ ε ε θ MI MI MI MI SOL
θ θ ε ε θ LA LA SOL SOL MI	θ θ ε ε θ LA LA SOL SOL MI
θ θ ε ε θ LA SOL SOL SOL MI	θ θ ε ε θ LA SOL SOL SOL MI
θ θ ε ε θ SOL SOL LA LA MI	θ θ ε ε θ SOL SOL LA LA MI
θ θ ε ε θ SOL MI LA LA SOL	θ θ ε ε θ SOL MI LA LA SOL

### 3.3 TXAKURRA DATOR ATZETIK

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 3.2. fitxa/CDa, jarduerak, 17. pista*

Lau gorputz atal dira aztikeriaz beteriko kanta hau lantzeko behar ditugun osagaiak.

Komen da ariketa zutik egitea, batez ere oinekin markatu behar den lehengo konpasa, ε ε θ (dilin dan) erosoago markatu ahal izateko. Ondorengo konpasek ez dute zailtasun bereizirik.

Aurreko unitateko abesti batean (Soinean daramagun orkestra) oso antzeko ariketa erritmikoa egin dugu. Oraingoan, aurrena kantatu egingo dugu: *Txakurra dator atzetik, goazen etxera kaletik*. Eta erantzuna izango da gorputzez egingo duguna: oinak, izterrak, txaloak eta ahotsez UAU!. Animalia aldatzen dugunean, ahotsez egingo dugun soinua ere aldatu egingo dugu

εε θ θθ θθ η (dilin, dan , dan dan, dan dan, doon).

Oinekin bi kolpe: εε θ

Belaunak kolpatuz: θ θ

Txaloekin beste bi: θ θ

Hatzak kliskatuz bat: η

UAU!

### 3.4 TXIRULA JOTZEN IKASTEN: "KATUAK, MIAU!"

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 3.4. fitxa/CDa, jarduerak, 18. pista*

Sol, La eta Mi notekin jarraitzen dugu. Aspaldiko partez, eskema erritmikoa bakarrik entzuteko aukera izango dugu. Guk, erritmoa markatzeko soinua iturri bezala txindatak aukeratu ditugu. Zuek, eskolan, nahi duzuen aukeratu dezakezue, baita gorputz atalen bat edo eta ahotsa bera ere, adibidez abestiaren izenburuari eutsiz, hots bakoitzeko *miau* esanaz.

Gogoratu ohiko prozedura:

1. Erritmoa irakurri eta markatu; ahoz, gorputzez...
2. Hitzak irakurri.
3. Solfeatu.
4. Abestu.
5. Txirula jo.

Gogoratu txirula jo aurretik ohiko "entrenamendua" egitearen garrantzia.

### 3.5 SEKUENTZIA-AZTERKETA

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koaderno, 3.5. fitxa/CDa, jarduerak, 20. pista*

Bakarkako lana da orrialde honetan eskatzen dena.

Sei sekuentziak irakurri eta aztertu egin beharko ditugu lehenik. Denak, lau konpasez osatuak daude eta orain arte landutako zelula erritmikoak agertzen dira:  $\eta \theta \theta \varepsilon \varepsilon \varepsilon =$  zuriak, beltzak eta kortxeak.

Ariketa burutzeko prest gaudenean, arkatza eta goma eskuetan, CDa martxan jarriko dugu. Bi lan prozedura nagusi daude: CDa martxan jarri eta sei eskemak segidan entzutea, edota, eskema bat amaitzen den bakoitzean CDa gelditu eta denbora pixka bat ematea ikasleei dagokion sekuentzia aurki dezaten.

Garrantzitsua da sekuentzia guztiak ongi aztertzea, behar den denboraz, CDa jarri aurretik.

### 3.6 TXIRULA JOTZEN IKASTEN: "GOIKO DO"

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koaderno, 3.6. fitxa*

Do maiorreko eskala ikasi genuenean, ("Musika ikasten ari gara", Urtxintxa 5 urte, abestiak 9) nota berri honetara iristean, hau da, goiko Do-ra, bueltako bidaiari ekiten genion abiapuntura itzultzeko. ESKALA: Do, Re, Mi, Fa, Sol, La, Si, **Do**, Si, La Sol, Fa, Mi, Re, Do. Goiko Do, pentagramako hirugarren tartean kokatua dago, Si notaren gainean.

Txirulan bi zulo besterik ez dira itxi behar: *txorro* hatz lodiarekin azpiko zuloa, ikusten ez dena eta hainbat arazo sortzen dizkiguna, eta beste zuloa goitik hasi eta bigarrena izango da, *piko* hatzarekin tapatzen duguna. Beraz, ezkerreko eskuko *txorro* eta *piko* hatzei dagozkien zuloak dira goiko Do sortzeko ongi tapatu behar ditugunak.

Txirula hartu eta froga dezagun zer nolako nota den hau. Orain arte ikasitako altuena, *agudoena*. Hainbat eskema erritmiko proposatuz landuko dugu nota hau:

$\theta$	$\theta$	$\theta$	$\theta$
$\theta$	$\theta$	$\varepsilon\varepsilon$	$\theta$
$\varepsilon\varepsilon$	$\theta$	$\varepsilon\varepsilon$	$\theta$
$\varepsilon\varepsilon$	$\varepsilon\varepsilon$	$\theta$	$\theta$
$\varepsilon\varepsilon$	$\varepsilon\varepsilon$	$\varepsilon\varepsilon$	$\theta$
$\theta$	$\varepsilon\varepsilon$	$\varepsilon\varepsilon$	$\theta$

Beti ere goiko Do nota erabiliz egingo ditugu ariketa horiek. Honen helburua nota horren soinua ongi sortzea eta barneratzea da.

Orrialde honetako bigarren lana Do eta La notez baliatuz melodiato simple bat asmatzea izango da. Zergatik La eta Do? Ba, nota batetatik bestera joan ahal izateko hatzen mugimendua oso erraza delako. Horregatik errepika ariketak egitea proposatzen dizuegu berriro ere. Lehenik goiko Do notaz bakarrik baliatuz, ondoren, La ere sartuko dugu saltsan. Berehala ikasiko dute. Segituan Si nota sartzeko garaia izango da.

ADIBIDEAK:

<b>IRAKASLEAK</b>	<b>IKASLEEK TXIRULAZ</b>
θ θ ε ε θ DO DO DO DO DO	θ θ ε ε θ DO DO DO DO DO
θ θ ε ε θ LA LA LA LA LA	θ θ ε ε θ LA LA LA LA LA
θ θ θ θ DO LA DO LA	θ θ θ θ DO LA DO LA
θ θ ε ε θ DO DO DO DO LA	θ θ ε ε θ DO DO DO DO LA
θ θ ε ε θ LA LA LA LA DO	θ θ ε ε θ LA LA LA LA DO
θ θ ε ε θ LA LA DO DO LA	θ θ ε ε θ LA LA DO DO LA
θ θ ε ε θ LA DO LA LA DO	θ θ ε ε θ LA DO LA LA DO
θ θ ε ε θ DO DO LA LA DO	θ θ ε ε θ DO DO LA LA DO
θ θ ε ε θ DO LA DO DO LA	θ θ ε ε θ DO LA DO DO LA
θ θ ε ε θ DO LA DO LA LA	θ θ ε ε θ DO LA DO LA LA

### 3.7 TXIRULA JOTZEN IKASTEN: "ZALDI TXIKIA"

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 3.7. fitxa/CDa, jarduerak, 21. pista*

Abesti serioa oraingo hau, hamasei konpas ditu. Nahiz eta lau nota bakarrik agertzen diren, grabeenetik (Mi) hasi eta agudoena den (goiko Do) notarainoko tartea handi samarra da.

Erritmoa irakurri, markatu, solfeatu eta hiru bertsoak abestu ondoren txirularekin hasiko gara. Berehala konturatuko gara La eta Mi notak lotzen dituen pasarte zaila eta benetan korapilotsua dela.

La nota jo ahal izateko ezker eskua aski da baina Mi nota jo nahi badugu ezker eskuko hatz bat gehiago eta eskuin eskuko bi beharko ditugu. Lehenengo alditan kosta egiten da. Gainera, hirutan egin beharko diogu aurre zati bihurri honi: laugarren, hamargarren eta hamalagarren konpasetan, hain zuzen ere.

Orkestra handietan ere pasarte konplikatu batekin topo egiten badute, zuzendariak zati hori behin eta berriro errepikatzeko agindua ematen du, ongi atera arte. Entseguak edo, guk deitzen diegun "entrenamenduak" horretarako dira hain juxtu.

Guk ere, orkestra baten antzera, lehenengo lau konpasak bakarrik hartu eta behin eta berriro, gelditu gabe joko ditugu:

θ   θ   θ   θ   θ   θ   θ   θ  
LA   SI   DO   DO   SI   SI   LA   MI

Lehen saiakeran hamar aldiz joko ditugu. Gero, beste hamar aldiz, baina irakasleak ez du bigarren aldiz jotzeko aginduko lehenengoa oso ongi atera ez bada. Horrela, hamar aldiz bikain jo arte. Irakasleak zorrotz jokatzeko badu, hamar pasarte bikain entzun ahal izateko, ikasleak hogeit hamar edo hogeita bost saiakera egin beharko dituzte.

Azkenik beste hamar aldiz joko dugu, baina oraingoan deskantsurako aukera egongo da. Ikasle bakoitzak bi zenbaki aukeratuko ditu, nahi dituenak, adibidez 4 eta 8. Ondoren, irakasleak hasteko agindua emango du. "Bat!". Ongi atera bada, "Bi!" esango du. Oraingoan ez bada nahi bezain ongi entzun, berriz ere "Bi!"... Irakasleak "Lau!" esaten duenean, 4 eta 8 aukeratu dituen ikasleak, atsedean hartzeko aukera izango du. Baina jotzen jarraitu beharko du irakasleak "Bost!" esaten duenean. Oraindik ere deskantsurako beste aukera bat badu. Horrela, konturatu gabe eta jolas giroan, goian aipatzen genuen pasarte konplikatu hainbat aldiz jo ahal izango dugu. Ziur gaude, oraingoan askoz ere hobeto aterako dela.

Gogoratu ohiko "entrenamendua" egitea txirula jotzen hasi aurretik.

### **3.8. MUSIKARIEN TXOKOA: *ORGANOA eta BIBRAFONOA***

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 3.8. fitxa*

Hainbat familiatan biltzen dira musika-tresnak. Batzuk egurraren familiakoak dira, beste batzuk metalaren familiakoak, eta beste batzuk haizearen familiakoak. Hau da organoaren kasua. Organo jotzaile batek teklak jotzen ditu, baina, organoaren hodiedatik haizea pasatzen da. Hodiaren tamainaren arabera, haizeak toki gehiago edo gutxiago du bertatik pasatzeko, eta horren arabera sortzen dira notak.

Guk, geure erako organo bat egingo dugu. Horretarako 6 botila behar ditugu, baina berdinak izan behar dute, adibidez freskagarrienak. Ondoren ura botako dugu botila bakoitzean, baina kantitate ezberdina. Botila bakoitzean kolore bateko klarion-hauts pixka bat bota dezakegu desberdintasuna nabarmentzeko.

Prest dugunean, botilaren muturrean putz egingo dugu, baina goxogoxo. Haizeak ura jotzen duenean bibrazioak eragiten ditu eta horrela sortzen da soinua.

Ur gutxien duen botilak sortuko du soinu grabeena eta gehien daukanak agudoena. Zenbat eta espazio handiagoa izan haizearentzat, orduan eta grabeagoa izango da soinua.

Ezer aldatu gabe beste tresna bat daukagu gure aurrean: BIBRAFONOA. Oraingoan haizea bota ordeztu, arkatzen batekin kolpatuko ditugu botilak. Gauza kuriozkoa gertatuko zaigu: lehen soinu grabeena egiten zuenak orain agudoena egin du. Zergatik ote? Galdetu ikasleei eta egin hausnarketa bat. Musikan ere, fisikako legeak dira nagusi.



## LAN KOADERNOTIK APARTEKO KANTAK

Kantatzeko gogoia suspertzea da honen helburua, eta aldi berean aho-korapiloekin jolas egitea. Zer esan nahi duten kanta honetako hitzek? Auskalo!

### LAU KATU ETA DANBOR BAT

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: CDa, jarduerak, 19. pista*

*Lau katu eta danbor bat  
miauka eta parran panpan!  
Gehiago ez omen gara,  
zatoz gurekin plazara!  
Kalean gora katuak miauka,  
kalean behera zakurrak hozka,  
hemen behintzat ez da falta  
festarik sekula santan.*

*Mirri, marrau, bart non zinen?  
Han sabaian goian, goian.  
Han goian, sabaian, zertan?  
Txitxi eta papa jaten.  
Mox-mox katutxo  
mirri-mirri miau!  
Nire partea nork jango du gaur?  
Apalean utzi eta  
katuak jan mirri marrau!*

*Bunbullun bunbullenete,  
botila aguardiente.  
Harranbi harranbillete,  
zakurrak buztana tente.  
Bunbullun bat, bunbullun bi,  
bunbullun putzura erori.  
Edan zituen pitxar bi,  
ez zen orduan egarri.*

*Harriola marla kunkonkin,  
portera zela portan min.  
Kinkurrun kirun karun plet,  
arraxi marraxinolet.  
Tarrapatan, tarrapatzan, patzan!  
Danborra ari da jotzen plazan.  
Hala bazan, hala ez bazan,  
sar dadila kalabazan.*